

EUSKADIKO GAZTEAK NAHI BAINO BERANDUAGO EMANTZIPATZEN DIRA

Gazteen langabeziaren hazkundeak eta lanaren ezegonkortasunak etxea erosteko aukera murrizten dute eta alokatzera bultzatu

Gazteen egungo egoera gogoan izanik, Gazteen Euskal Behatokiak **“Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian”** ikerketa luze eta zabala eman du argitara, enplegua eta etxebizitza interesgunetzat daukan lana. 2011n eta 2013an etxerik etxe 18 eta 34 urteko 1800 gazteri egindako inkestetan oinarritzen da.

Hona lan horren ondorio nagusiak:

ENPLEGUA: ESKASAGOA ETA PREKARIOAGOA

- ✓ Gazteen % **45,2k lanean dihardu**, % **27,4k ikasten** eta % **22,7 langabezian dago**. Ikerketaren arabera enpleguaren beherakada txikia izan da jarduera nagusitzat hartzen badugu, langabezia areagotu da eta prestakuntza-aldia luzatu egin da.
- ✓ **Behin betiko kontratazioak gainbehera etorri dira eta aldi baterako lanak gora egin du**: dagoeneko gazte-enpleguaren herena da. Gizon baino emakume gazte gehiago dabil lanean, nahiz eta emakumeek behin-behineko kontratu gehiagoren pean aritu, lanaldi partzialean gehiago aritu eta haien batez besteko hileko soldata gizonetzkoena baino 200 euro baino baxuagoa izan.
- ✓ **Diru-bitartekoak behera etorri dira** 2011rekiko. Nahiz eta soldatak egonkortu, eta bataz bestean 1000 eurokoak izanik ere, gehiago dira beharrik gabeko gazteak, eta gehiago ere diru-sarrerarik ez daukaten langabetuak. Lanean diharduten erdiek sari txikia jasotzen dutela uste dute, eta hamarretik lauk ez daukate euren prestakuntzarekin lotura duen lanik.
- ✓ Baieztapena egiazkoa da nonbait: **zenbat eta ikasketa-maila altuagoa, orduan eta lanerako aukera gehiago**. Derrigorrezko ikasketak dituztenen artean % 32,3 langabe dago; goi mailako ikasketak dituztenen artean, aldiz, % 19,1.
- ✓ Lan-merkatuaren zailtasunek badute eragina gazteen portaeran: **lan baldintzetan egoera kaxkarragoa onartzeko prest daude**, dela lanez aldatzea, dela maila baxuagoko lanbide batean aritzea, dela euren kualifikaziotik beheragoko saria eskuratzea. Egoera horren aurrean gora egiten du **norberaren kontura aritzea** planteatzen dutenen kopuruak (% 39,4) eta gehiago dira **atzerrira joateko prestasuna** dutenak lan interesgarria eskainiz gero (% 42,7).

EMANTZIPAZIOA: 30 URTE ETA ALOKAIKURUAN

- ✓ Zailtasunak gorabehera, 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen kopurua erdiaren ingurukoa da: % 48,1. Emantzipazioa, batez beste, 30 urte bete orduko gauzatzen da, nahiz eta gazteek adierazi **adin egokia 24 urtekoa dela, hau da, sei urte lehenago**. Europar Batasuneko gazteen aldean lau urte geroago, 26 urterekin lagatzen baitute han familia-unitatea.
- ✓ **Gazte emantzipatu gehienak bikotekidearekin bizi ohi dira** (% 70,4). Bakarrik emantzipatzea gutxien aukera da (% 15,7), etxebizitza eskuratzeak duen kostuagatik.
- ✓ Alokairura jotzea emantzipatzeko gero eta sarriago gertatzen da, eta etxea erostea bigarren aukera da egun, nahiz eta 2011n berau joera nagusia izan. **Emantzipatutako gazte erdiak alokairuan bizi dira: % 49,4**.
- ✓ Emantzipatu gabeko gazteen artean nabarmen egiten du gora alokairuaren aldeko hautuak, emantzipatuko badira. 2011n gurasoekin bizi ziren gazteen % 18,4k egokiagotzat jotzen zuten alokatzea erostea baino. 2013an, aldiz, % 44,2k egingo luke alokairuaren alde, hipotekaren mailegua ez ordaintzearen batik bat.

GAZTE GEHIAGO ETXE BABESTUETAN ETA GIZARTE-ALOKAIKURUAN

- ✓ **Etxe babestuetan bizi diren gazteen ehunekoak handitu egin da:** 2011n % 9,9 izatetik 2013an % 15,8 izatera heldu da. Araban lau gaztetik bat etxe babestuan bizi da.
- ✓ Etxe babestuen kasuan ere **alokairuak etxea jabetzan eskuratzeak baino hazkunde nabariagoa izan du**. Alokairuaren bidea 2011n % 3 da eta 2013an % 7,7; jabetzan hartzea, aldiz, 2011n % 6,9 eta 2013an % 8,1.
- ✓ **Gazteek ordaintzen dituzten hipoteken batez bestekoa merkatu da eta 580 eurokoa da**. Hala ere, alokairuen batez bestekoa 602 eurokoa da. Etxebizitza libre eta babestuaren arteko aldeak agerikoak dira, batik bat alokairuari dagokionez: gazteek ordaintzen duten alokairu librearen batez besteko errentak (662 €) gizarte-alokairuaren batez bestekoa bikoizten du (318 €).
- ✓ Emantzipatu diren bost gaztetik batek **gehiegizko ahalegin ekonomikoa** egin behar du, etxeko diru-sarreren % 40 hipoteka edo alokairua ordaintzera bideratu behar du eta. Gauzak horrela emantzipatutako gazteen % 26,5ek **hilabete amaierara iristeko zailtasunak** dituztela adierazi dute.
- ✓ Zailtasunak zailtasun, gurasoekin bizi diren gazteen erdiek baino gehiagok (% 57,4) hiru urteren buruan emantzipatzeko asmoa daukatela azaldu dute.

Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean (www.gaztebehatokia.euskadi.eus) txostena osorik eskuratzeko modua dago.